

Jaiotzak %1,9 gehitu ziren 2008ko hirugarren hiruhilekoan

Bigarren eta hurrengo haurrak %7 ugaritu ziren

2008ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 5.417 jaiotza erregistratu ziren, iazko aldi berean baino %1,9 gehiago, Eustaten datuen arabera. Lurraldeka, Araban 819 haur jaio ziren, %3,4ko hazkundera; Bizkaian 2.742 jaiotza, %4,6ko hazkundera; Gipuzkoan 1.856 jaiotza, %-0,8ko jaitsiera.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2008ko hirugarren hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 3.085 haur, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.937 haur (%35,8) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi ziren; eta hirugarren eta ondorengo seme-alabak %7,3ra iritsi ziren. Gipuzkoan (%43,5), bigarren eta ondorengo seme-alaben kopurua Euskal AEko batez bestekoa (%43) baino handiagoa izan zen, eta hori herrialde historiko horretan baino ez zen gertatu.

Jaiotzen %77,5ean amak 30 urte baino gehiago zituen


Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean gertatu baitziren erditzeen %43,6. Ondoren, goragoko taldea dago, hau da, 35-39 urte artekoa (%28,6); 25-29ko taldea beherago geratu da, erditzeen %15,6 ekarri baititu. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amatzen direnak %7,0 dira, eta 40 urtez gorakoen taldean jaiotzen %5,2 gertatu da.

Ezkontzaz kanpo jaioek guztizkoaren %29,9 hartu zuten. Gipuzkoa (%28,7) izan zen Euskal AEkoa baino ehuneko txikiagoa izan zuen lurralde bakarra. Talde horren erditze-adina haurrak eduki zituzten amen multzo osoarena baino txikiagoa izan zen, ama ezkongabeen %16,1 14 eta 24 urte bitartekoak baitziren; %7 besterik ez, ama guztiak aintzat hartuz.

1.- taula: Bizirik jaiok Euskal AEn. Taula konparatiboa

	2008ko 3. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2008ko 2. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2007eko 3. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	5.417	100,0	5.455	100,0	5.315	100,0
Araba	819	15,1	818	15,0	792	14,9
Bizkaia	2.742	50,6	2.769	50,8	2.652	49,9
Gipuzkoa	1.856	34,3	1.868	34,2	1.871	35,2
Amaren adinaren arabera						
<= 24 urte	377	7,0	360	6,6	365	6,9
25 - 29 urte	844	15,6	959	17,6	934	17,6
30 - 34 urte	2.361	43,6	2.376	43,6	2.399	45,1
35 - 39 urte	1.552	28,7	1.498	27,5	1.372	25,8
>= 40 urte	283	5,2	262	4,8	245	4,6
Amaren egoera zibilaren arabera						
Ezkondua	3.795	70,1	3.858	70,7	3.846	72,4
Ezkongabea	1.622	29,9	1.597	29,3	1.469	27,6
Jaiotza-hurrenkera						
Lehenengoa	3.085	57,0	2.956	54,2	3.135	59,0
Bigarrena	1.937	35,8	2.076	38,1	1.811	34,1
Hirugarrena edo gehiago	395	7,3	423	7,8	369	6,9

Iturria: EUSTAT

1. grafikoa: Jaiotzen hilez hileko mugimendua


Oinarria 100 = b.b.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

 Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

+Tlf:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es